



VIII. IDAZLAN KOADERNOAK 2009



AURKIBIDEA

- 1.- SARRERA**
- 2.- HELBURUAK**
- 3.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK**
- 4.- EKINTZA OSAGARRIAK**
- 5.- XEDE TALDEA ETA ADIERAZLEAK**
- 6.- KRONOGRAMA**
- 7.- GASTUEN ZERREDA**
- 8.- ERANSKINAK:**

I. ERANSKINA: Egindako batzarretako aktak.



1.-SARRERA

Lehenengo Idazlan koadernoak (L.I.K.), Gernika-Lumoko ikastola eta ikastetxe ezberdinetan ikasturte bakoitzean taxututako idazlanak plazaratzeko asmoarekin jaio zen 2002an; ikastetxeetan ikasturtean zehar aukeratzen diren idazlanik onenak batu eta, modu duin eta txukunean bi liburutan argitaratzen dira, bata LH-koena eta, bestea, DBH-koena.

Tresna estimagarri bilakatu dira liburuok eskoletan irakurmena eta idazmena lantzeko. Argitalpenak plazaratzeko bi irakurketa ekitaldi antolatu izaten dira (LH-koena eta DBH-koena), euskarri informatikoez apainduta (irudi, musika, marrazki,...) eta idazle gaztetxo guztiei euren ahalegina eskertzeko.

Aurtengoan, 2009an, VIII. Idazlan Koadernoari (Z.I.K.) emango diogu beta eta gogoz arituko gara ikastetxeekin elkarlanean. aurreko urteetan bezala, osagai bereziak ere antolatuz:

- Irakurketa ekitaldiak (LHkoena eta DBHko/Batxilergokoena) Lizeo antzokian: egindako lanak jendaurreratzeko, gelakideentzat idazleak eredugarri izan daitezen eta eskolaz kanpoko egoera eta tokietan euskararen erabilpenerako bideak jorratu asmoz.



2.-HELBURUAK

Egitasmo honen bitartez, 2009-2012 eperako Gernika-Lumoko Euskara Biziberritzeko Plan Estrategikoan eta 2009ko Kudeaketa Planean aintzat hartutako hurrengo helburu, esparru, neurri eta ekintzak landu gura dira:

- **Helburu estrategikoa: 1.- Euskararen ondorengoetaratzea.**

- **Esparrua.- 1.a. Irakaskuntza.**
- **Neurria.- 1.a.03** – Hizkuntza politikoaren arloan garatutako ekimenen eraginik aldekoena hezkuntza-arloan antzeman da, hain zuzen ere, EAEko eta Nafarroak Lehen eta Bigarren Hezkuntzako Ikastetxeetan. EAEn, irakaskuntza-sistemako B ereduaren onarpenari ekser gertatu da euskararen areagotzea gazteenen artean.
- **Ekintza:**

1.a.03/8 Erabatekoa	Irakurzaletasuna bultzatzeko dauden ekimenen berri ematea eta horiek gauzatzeko beharrezkoak diren baliabideak edo laguntza eskaini.
------------------------	--

- **Helburu estrategikoa: 3.- Euskararen elikadura.**

- **Esparru: 3.c – Liburugintza.**
- **Ekintzak:**

3.c.01/2 Erabatekoa	Eragin esparruko ikastetxeekin batera euskal literaturaren zaletasuna bultzatzeko ekitaldiak antolatu (ipuin-bildumaren argitalpena: LHkoa eta DBH-koa)
------------------------	---



3.- ERAGILEAK ETA BALIABIDEAK

Eragileak:

- Euskara Zerbitzua: bilerak koordinatzea, argitalpenak egokitzea, eta gainerakoak antolatzea (irakurketa ekitaldia, erakusketa eta hitzaldiak).
- Udal Eskola Kontseilua: Batzorde honek egiten dituen bilkuretan, bestea beste, zehazten dira urtero ikasturtean burutuko diren eskolaz-kanpoko ekintzen egutegia. Ekintza horien artean Idazlan koadernoarena (noiz, osagarriak, baldintzak, e.a.).
- Ikastetxeak/Institutuak: 7 zentro.

Baliabideak:

- Eskoletako/Institutuetako irakasleak (7): irakasle arduradun bat izango da zentro bakoitzean Idazlan Koadernoaren egitasmoa garatzeko.
- Azpiegitura eta diruzkoak: antolaketarako behar izan den azpiegitura eta diru-baliabideena Gernika-Lumoko Udalak jarriko du.

4.- EKINTZA NAGUSIA ETA OSAGARRIAK

- Argitalpenak:

- Lehen Hezkuntza VIII. IDAZLAN KOADERNOA – LHko irakasleak: 30 idazlan (500 ale inprimatuko dira: sari-banaketarako 60, zentroetarako 300 eta gainerakoak, 140, hurrengo urteetako sari-banaketetarako).



- DBH/Batxilergo/HHIko VII. IDAZLAN KOADERNOA.- DBH/Batxilergoko ikasleak: 33 idazlan (500 ale inprimatuko dira, aurreko kasuko banaketa bera eginik).
- **Irakurketa ekitaldiak:** sari-banaketarako antolatuko dira eta bi ekitaldi osatuko dira (ordu beteko saioak):
 - LHkoena, martxoaren 26ean goizez, 11:00etan.
 - DBHkoena, martxoaren 31n goizez, 11:00etan.

5.- XEDE TALDEA ETA ADIERAZLEAK

Xede taldea:

Aldez aurretik argitu behar, egitasmo honen xede talde nagusia Gernika-Lumoko ikasleak ez ezik bertoko zentroetako ikasleak direla, eskualde osokoak biltzen direlako eurretan.

Beraz, hauexek izango dira zehatz egitasmoaren xede taldeak:

- **LHko ziklo guztietako ikasleak (1.092):**
 - Idazlanak aurkeztuko dituztenak: LHko ikasleen 500 bat idazlan.
 - Hautatu eta argitaratuko diren idazlanak: 30.
 - Argitalpenak landuko dituztenak: LHko ikasle guztiak (1.092).
- **DBH/Batxilergoko ikasleak (1.300 inguru):**
 - DBHko 500 bat idazlan aurkeztuko dira.
 - Hautatu eta argitaratuko diren idazlanak: 30.
 - Argitalpenak landuko dituztenak: LHko ikasle guztiak (1.092).



- Hautatutako idazleen senitartekoak (240 bat): sendikoei gonbitea egiten zaie irakurketa ekitaldietarako. Gainerakoa senitarteei ere iristen zaie honi buruzko jakinmina: **500 bat** pertsona heldu gehiago.
- Oiz-Mendi telebistak (toki telebista) grabatu eta hiru aldiz emititzen ditu irakurketa ekitaldiak. Ikusle kopuru potentziala edo audientzia datuak: **20.000** (Busturialdean eta Lea-Atibai eskualdeetan).

Adierazleak:

Egitasmo honi lotutako adierazleak partaideen kopuruekin lotuta dauden arren, urtero erabiltzen dugun beste adierazle bat hauxe dugu: Barriola eta Urruzuno lehiaketetan udalerriko irakaskuntza zentroetako ikasleek lortutako sariak. Honek ematen digu gure gaztetxoek idazmenaren neurri.

6.-GARAPENA - KRONOGRAMA

	2008			2009		
Eginkizunak	Urria	Azaroa	Abend	Urtarri	Otsaila	Martxoa
Bilerak	21			14		
Ikastetxeetan idazlanak						
Idazlanak batu					16	
Argitalpenak egokitu						
Inprentakoa burutu						26, 27
Irakurketa ekitaldiak						



7.- AURREKONTUA

Kontzeptuak	Kopuruak
Irakurketa ekitaldirako ikusentzunezkoak egokitzea (irudiak, musika, marrazkiak,...)	1.500
Zortzigarren Idazlan Koadernoa – LHko ikasleen liburua Zortzigarren Idazlan Koadernoa – DBHko ikasleak	9.500
Irakurketa ekitaldietako gidoia prestatu eta aurkezpenak egin (antzezlan gisa moldatutako aurkezpena: bi antzezlari)	650
Sariak: liburuak erosteko bonoak (70 x 35 €)	2.450
Gastuak guztira	14.100

Gernika-Lumon, 2009ko urtarrilean.

Idoia Fernández Antia
Euskara Arloko Zinegotzia

Bittor Zarrabeitia Bengoa
Euskara Teknikaria I



I. ERANSKINA

Egindako batzarretako aktak



UDAL ESKOLA KONTSEILUAREN BATZORDE IRAKUNKORRAK 2.008ko URRIAREN 21ean IZANDA-KO BATZARRARI DAGOKION AKTA.-

Batzarrerako finkatutako gai zerrendaren arabera, ordu bakoitzean eta gai bakoitzari buruz gertatua jarraian adierazten da

Idazkari lanetan, Bittor Zarrabeitia (Euskara Teknikaria).

(.....)

2).- 10,00etan: VIII. IDAZLAN KOADERNOAK.

Batzarreratuak:

- Iñaki Gorroño (Zinegotzia)
- Berritzegunea.
- Seber Altube Ikastola.
- Mertzedo Ikastetxea.
- Barrutia Ikastetxea.
- Allende Salazar Ikastetxea.
- San Fidel Ikastola.
- Gernika Institutua.
- Barrutialde Institutua.
- HHI-EPA.

Hartutako erabakiak:

1.- Iazko baldintzak eurak mantentzea, Gernika Institutuko Batxilergo mailako idazlanen kopurua salbu (6 idazlan).

ZIKLOA	LAN KOPURUA	ORRI KOPURUA-IDAZTARUAK
L.H. 1. Zikloa	2 idazlan zentro bakoitzeko	Orrialde bateko lanak eskuz idatzita, marrazkia barru



L.H. 2. Zikloa	“ “ “ “	2 orrialdeko lanak eskuz idatzita, marrazkia barru
L.H. 3. Zikloa	“ “ “ “	3 orrialdeko lanak eskuz idatzita, marrazkia barru
DBH 1. Zikloa	“ “ “ “	3 orrialdeko lanak , marrazkia barru, ordenadorez idatzita eta disketean (letra 12a; interlineatu bikoitza; orrialdeko 25 lerro)
DBH 2. Zikloa	“ “ “ “	4 orrialdeko lanak , marrazkia barru, ordenadorez idatzita eta disketean (letra 12a; interlineatu bikoitza; orrialdeko 25 lerro) 5
HHI-EPA	2 idzlan	“ “ “ “
BATXILERGOA	6 Gernika Institutukoak 4 Barrutialde Institutukoak	3 orrialde <u>gutxienez</u> , marrazki barik, ordenadorez idatzita eta disketean (letra 12a, interlineatu bikoitza , orrialdeko 25 lerro)

2.- Lanak aurkezteko epe-muga: otsailak 16.

3.- Irakurketa ekitaldiak: martxoak 26 LHkoa eta 27an DBH/Batxilegokoa.

4.- Hurrengo batzarra URTARRILAREN 14an (10:00etan) egitea, jarraian zerrendatutako gaiak aztertzeke:

- Portadak aukeratzea. Ordurako zentro bakoitzak aurkeztu beharko ditu bere proposamenak.
- DBHkoen irakurketa ekitaldietarako ideiak.

(.....)



UDAL ESKOLA KONTSEILUAREN BATZORDE IRAKUNKORRAK 2.009ko URTARRILAREN 14an IZANDAKO BATZARRARI DAGOKION AKTA.-

Batzarrerako finkatutako gai zerrendaren arabera, ordu bakoitzean eta gai bakoitzari buruz aztertu eta erabakitakoa jaso da.

Idazkari lanetan, Bittor Zarrabeitia (Euskara Teknikaria).

(.....)

2).- 10,00etan: VIII. IDAZLAN KOADERNOAK.

Batzarreratuak:

- Iñaki Gorroño (Zinegotzia/Batzorde-Burua)
- Ekain Ormaetxea (Zinegotzia)
- Berritzegunea.
- Seber Altube Ikastola.
- Mertzede Ikastetxea.
- Barrutia Ikastetxea.
- Allende Salazar Ikastetxea.
- San Fidel Ikastola.
- Gernika Institutua.
- Barrutialde Institutua.
- HHI-EPA.

Hurrengo erabakiak hartu dira:

1.- 2008ko edizioko baldintzak eurak mantentzea, Gernika Institutuko Batxilergo mailako idazlanen kopurua salbu (6 idazlan):

ZIKLOA	LAN KOPURUA	ORRI KOPURUA-IDAZTARUAK
--------	-------------	-------------------------



L.H. 1. Zikloa	2 idazlan zentro bakoitzeko	Orrialde bateko lanak eskuz idatzita , marrazkia barru. Boligrafoa edo errotuladorea erabili. Arkatzik ez.
L.H. 2. Zikloa	“ “ “	2 orrialdeko lanak eskuz idatzita , marrazkia barru. Boligrafoa edo errotuladorea erabili. Arkatzik ez.
L.H. 3. Zikloa	“ “ “	3 orrialdeko lanak eskuz idatzita , marrazkia barru. Boligrafoa edo errotuladorea erabili. Arkatzik ez.
DBH 1. Zikloa	“ “ “	3 orrialdeko lanak , marrazkia barru, ordenadorez idatzita eta CD batean (letra mota Times New Roman; tamaina 12a; interlineatu bikoitza; orrialdeko 25 lerro)
DBH 2. Zikloa	“ “ “	4 orrialdeko lanak , marrazkia barru, ordenadorez idatzita eta CD batean (letra mota Times New Roman; tamaina 12a; interlineatu bikoitza; orrialdeko 25 lerro)
HHI-EPA	2 idazlan	“ “ “ “
BATXILERGOA	6 Gernika Institutukoak 4 Barrutialde Institutukoak	3 orrialde <u>gutxienez</u> , marrazki barik, ordenadorez idatzita eta CD batean (letra mota Times New Roman; tamaina 12a; interlineatu bikoitza; orrialdeko 25 lerro)

2.- Batzarkideei eskaera berezia egin zaie lanak aurkezteko baldintza horiek mantentzea, maketazio eta inprenta lanak errazteko.

3.- Lanak aurkezteko epe-muga: otsailak 16.

4.- Irakurketa ekitaldiak: martxoaren 26an LHkoa eta 27an DBH/Batxilegokoa. Irakurketarako irizpideak:

- LH I. ziklokoek osorik irakurtzea.
- Gainerakoek, LHkoak zein DBH/Batxilergokoa, 2 minutuko irakurketa.



- Ikastetxe bakoitzeko bi irakurle irakurketa ekitaldi bakoitzean.

5.- Portadak aukeratzea: DBH/Batxilergo korako Institutuak aurkeztutako lanetatik bat aukeratu da (aktari erantsita). LHko portadarako Barrutia ikastetxeko eta Seber Altube Ikastolako lanak daude; batzordeko idazkariarekin bildu eta adostuko dute euren artean zein aukeratu.

6.- Idazleei sariak emateko iazko sistema berbera erabiltzea, hau da, udalerriko liburu-denda eta papertegietan gastua egiteko bonoak.

(.....)